



ur lebetzetza, katta eskulara eta Katta altxorra.



IBAIZABAL

'Goliat eta izarrak'
'Haragi kolorea'

Aralar mendikatean giro-tako bildumaren atal berria da *Goliat eta izarrak* liburua, eta Durangon dago salgai egunotan. Liburuan Txindokira doaz Maren eta Aiert, Joanes artzainak lagunduta. Aralar inguruan jatzotako abenturak biltzen dituen bildumaz gain, *Haragi kolorea* ipuina ere egongo da eskura garri Ibaizabal argitaletxearen mahaian.



TTARTALO

'Malkoak'
'Kiwi hartza'


Bi gai oso ezberdin lantzen dituzten liburuak aurki daitzke Ttartaloren postuan aurtengo azokan. Batetik, *Malkoak*, negar egitearen beharraren bueltan egindako ipuina. Negarra behar unibertsala dela kontatzen du liburuak, malkoen zentzu positiboa azalduz. Bigarren proposamena jai giroan murgiltzeko aukera bat da. *Kiwi hartza* liburuak, ostera, animalien eta gizakien



EREIN

'Tximeletak hondartzan'
'Azken Lanhürtarra'

Erein argitaletxeak 10-13 urte bitarteko haurrentzako bi liburu berri izango ditu salgai. Batetik, uraren zikloa hizpide hartuta, egjaren eta gezurraren inguruko hausnarketa egiten du Nerea Loiolak *Azken Lanhürtarra* liburuan. Bidaia bat proposatzen du idazleak; eguneroko mundutik imaginazioaren mundu magikorako bidaia. Bes-



MATAHAMI

'Aldo, musikari'

Matahami argitaletxeak Gwenola Morizorrek idatzitako eta Nahia Zubeldiak itzultitako *Aldo, Musikari!* Ipuina izango du salgai azokan. Istorioan, Aldok danbor bat jasotzen du opari, eta instrumentu berriari esker ikasiko du musika jotzen.



IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA

'Hala izan ala ez izan..'

Ikas pedagogia zerbitzuak bi disko eta liburu biltzen



PAMIELA

'Animaliak'
'Frutak'

Ariketa poetiko gisa aurkeztuta, haurrak kantuan jartzeko asmoz aurkeztu ditu Pamiela aurtengo nobedadeetako bi: *Animaliak* eta *Frutak*. *Ilargian kulunkari* bildumaren ale berriak dira hauek, eta 0-3 urte bitarteko umeentzako dira. *Animaliak* liburuak oihaneko piztien multzo ederra biltzen du; eta *Frutak*, berriz, gozo-gozoak diren hainbat jakiren eta haien fruta arbolen irudiez osatuta dago. Haurrek euren kabuz irakur ditzakete liburuak eta poema osatu.